

Oinarrizko Konpetentzien eskuratze-mailari buruzko txostena egiteko orientazioak

BIGARREN HEZKUNTZA



OINARRIZKO KONPETENTZIEN ESKURATZE-MAILARI
BURUZKO TXOSTENA EGITEKO
ORIENTAZIOAK

BIGARREN HEZKUNTZA

CURRICULUM GARAPENAREN TALDEA



SARRERA

Abenduaren [22ko 236/2015 Dekretuak](#), Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak (EHAA, 2016-01-15), apustu garbia egin du 2007ko Hezkuntzaren Lege Organikoa martxan jarri zenetik gure Erkidegoan txertatu zen kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredua indartzeko.

Ildo horretan, Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparruak aurreratu egiten ditu urriaren 16ko 175/2007 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa) adierazitako oinarrizko kompetentzien planteamenduan, aipatutako 2020 Esparru Europarrarekin bat, XXI. menderako hezkuntzari buruzko Nazioarteko Batzordeak –Jacques Delors (1996), DeSeCo/ELGA (2002) eta Tuning (2003) dira buruak– UNESCOri egindako txosteneko proposamenak.

Oinarrizko kompetentziak txertatuta, irakasleei sortu zaien zalantzarako bat da horiek nola ebaluatu behar diren. Horretarako, beharrezkoa da hala ebaluazioaren xedea nola ebaluazioaren prozedura birplanteatzea Curriculum-dekretuaren 46.7 artikuluan adierazitako agindua bete ahal izateko: *«Ikasturte amaieran, azken ebaluazioari buruzkoaren ondorengo txostenean, aurreko lerrokadan aipatutakoaz gain, oinarrizko kompetentzien eskuratzeko-maila eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko erabakia jakinaraziko dira.»*

Hezkuntza Sailak badaki oinarrizko kompetentziaren ikuspuntutik ebaluatzeak zailtasunak dakartzala eta irakasleek partekatuko dituzten eta, ahal de heinean, oinarrizko kompetentzien lorpen-maila zehazten duten hainbat adierazle behagarri definitu eta zehaztu behar direla.

Horregatik, eranskin hau laguntza-tresna da ikasturtearen amaierako ebaluazioetan irakasleen erabakiak orientatzeko. Eranskin honen xedea da, batetik, erraztea irakasleek egin behar duten lana erreferentzia-esparru koherente bat eta adierazle komun batzuk eskainiz, hezkuntza-etapa desberdinetako ebaluazio-araudian jasotako oinarrizko kompetentzien ebaluazioari buruzko alderdiak aplikatu eta bete behar dituztenean; eta, bestetik, erraztea, halaber, ikastetxeetan erabaki pedagogikoak hartzea.

AURKIBIDEA

1. Deskribapena
2. Oinarrizko kompetentzien definizioa
3. Oinarrizko kompetentzien balorazioa
4. Oinarrizko kompetentziak baloratzeko adierazleak:
 - 4.1. Adierazleak formulatzeko kontuan hartu diren irizpideak
 - 4.2. Ebaluazio-adierazleak
5. Oinarrizko kompetentzien eskuratzeko-maila baloratzeko prozedura:
 - 5.1. Nola identifikatu lorpen-maila
 - 5.2. Nola jardun ebaluazio-saioan

1. DESKRIBAPENA

Orientazio hauen helburua da ikastetxeei erreferentzia-esparru bat eskaintzea, curriculumarekin bat, ikasleen oinarrizko konpetentzien garapen- eta eskuratze-maila baloratzeko eta dagokien txostena egiteko.

2. atalak Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren oinarrizko konpetentzien karakterizazioa jasotzen du.

3. atalak zenbait gako ematen ditu gaur egungo konpetentzien esparruak ikasleen ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuan dituen ondorioen inguruan.

4. atalean oinarrizko konpetentzia bakoitza baloratzeko adierazleen proposamen bat dago. Adierazle horien iturri dira ikasgai guztietako curriculum ofizialak.


Azkenik, 5. atalak oinarrizko konpetentzien eskuratze-maila baloratzeko prozedura orientagarri bat eskaintzen digu.

2. KONPETENTZIEN DEFINIZIOA

Oinarrizko konpetentziak, oro har, ezinbesteko ikaskuntzak dira XXI. mendean bizitza sozialean baztertuta izateko arriskurik gabe moldatzeko. Bizitzarako beharrezkoak eta ezinbestekoak dira, baina komeni da bereiztea eta erlazionatzea. Bereiztea; izan ere, oinarrizko zehar-konpetentziak soilik ikasi eta ebalua daitezke oinarrizko diziplina-konpetentziak garatzen dituzten ikasgaietako edukiak ikasteko prozesuan integratuta. Eta horrekin batera, horiek erlazionatu egin behar dira, oinarrizko zehar-konpetentzien bitartekaritza behar delako oinarrizko diziplina-konpetentziak eskuratzeko.

Oinarrizko zehar-konpetentzia deritze bizitzaren esparru eta egoera guztietan (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) arazo-egoerak eraginkortasunez konpontzeko behar diren horiei, hala diziplina-ikasgai guztiekin erlazionatutako egoeretan nola eguneroko bizitzaren egoeretan. Ikasgai guztietan batera lan eginez sustatu eta indartu behar dira zehar-konpetentziak, eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira.

Oinarrizko diziplina-konpetentziak bizitzako esparru eta egoera batzuekin zerikusia duten arazoak (pertsonalak, sozialak, akademikoak eta laboralak) eraginkortasunez konpontzeko behar dira. Horretarako, diziplina-ikasgai batekin lotutako berariazko baliabideak erabili behar dira.



3. OINARRIZKO KOMPETENTZIEN BALORAZIOA

Hezkuntza-mundua paradigma-aldaketa batean murgilduta dago; hala, edukiak adierazi eta eskuratzea ardatz duen hezkuntzatik oinarrian kompetentziak garatzen dituen hezkuntzarantz ari da aldatzen.

Aldaketa horrek garrantzi erabakigarria du Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren funtzioa eta zentzua bideratzerakoan. Etapa honetan elementu nagusi gisa oinarrizko kompetentziak txertatzeak hauxe eskatzen du: etaparen amaierako ezinbesteko apendizaiak zein diren birplanteatzea, hau da, ikasleei ondorengo etapetan ikasketetan jarraitzea edo mundu profesionalean lanean hastea bermatuko dieten ezinbesteko apendizaiak zein diren birplanteatzea.

Era berean, konpetentzien garapenean oinarritutako ikuspegiak ondorio garrantzitsuak ditu irakasleen lana planifikatzean, ikasteko eta irakasteko jarduerak antolatzean eta ikasleen lorpenak ebaluatzean.

Hezkuntza Sailburuaren Aginduak garatu egiten du abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren VII. kapituluko bigarren atalean ikasleen ebaluazioari buruz adierazitakoa. Agindu horrek 46. kapituluan hau ezartzen du: *"7.- Ikasturte bakoitzeko ebaluazio-saio bakoitzaren ondoren, edo hala komeni denean, tutoreak ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren txostena egin eta haren gurasoei edo legezko tutoreei emango zaie. Txosten horretan jasoko dira arlo edo ikasgai bakoitzeko kalifikazioak, bai eta eskola-errendimenduari, gizarte-heziketako integrazioari eta, hala dagokionean, laguntza- eta indartze-neurri orokorrei buruzko informazioa ere. Ikasturte amaieran, azken ebaluazioaren ondorengo txostenean agertuko da, aurreko lerrokadan aipatutakoaz gain, oinarrizko konpetentzien eskuratze-maila eta mailaz, zikloz edo etapaz igotzeko edo ez igotzeko erabakia.(...)"*

Ebaluazioari lotutako agindu horrek ez du esan nahi ikasleen bi ebaluazio bereizi egin behar direnik: bata ikasgaien ikaste-prozesuan oinarritua; eta, bestea, oinarrizko konpetentzien garapenean. Bigarren Hezkuntzan, ikasgaien ebaluazio-irizpideak dira ikasleak ebaluatzeko erreferente argiak, eta oinarrizko konpetentziak ebaluatu ahal izateko adierazleak ere badituzte.

Halere, hezkuntza-ikuspegi batetik bestera igarotzeko une honetan, badirudi beharrezkoa dela ikustaraztea oinarrizko konpetentziak, bereziki oinarrizko zehar-konpetentziak, ebaluatzea garrantzitsua dela ikasturtearen amaierako ebaluazioan.

Oinarrizko konpetentzien ebaluazioa ez da ikasgaien edukien ebaluazioa bezain ohikoa. Gainera, konpetentzien ebaluazioa maila bakoitzeko irakasleek elkarrekin egin behar dute. Konpetentzien eskuratze-maila baloratzea ikasleek eskuratutako ezagutza egiaztatzea baino gehiago da. Konpetentzia bat eskuratu izanaren ebidentziek arazo-egoera esanguratsu bat eskatzen dute. Egoera horretan ikusiko da ezagutza aktibatu dela arazo-egoerei irtenbidea emateko baliatutako estrategia eta jarrererekin.

Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran eskola-orientaziorako txosten indibiduala egiteko adierazleak zerrenda bat behar da. Hala, adierazle horien bidez, irakasleek elkarrekin erabaki ahal izango dute oinarrizko zeharkako konpetentzien ebaluazioari buruz, eta, halaber, oinarrizko diziplina-konpetentzien ebaluazioa egin ahal izango dute dagokien ikasgaiaren kalifikazioak integratuz.

Txosten hori egiteak, bestalde, aukera emango du:

- Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitza amaitzean ikasleen garapenari buruzko balorazio globalagoa egiteko. Izan ere, oinarrizko kompetentziei esker, ikasleek ikasitakoa balora daiteke ez soilik ikuspuntu akademikotik, baita kontuan izanda beste alor batzuetako egoerak ere: pertsonala, soziala eta lanekoa.
- Ebaluazioan lehentasuna emateko ikasturtea amaitzeko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ondo jarraitzeko benetan beharrezkoak diren ikaskuntzei. Oinarrizko kompetentziak era egokian garatzeko ikaskuntza horiek, hein handi batean, batez ere instrumentalak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak izango dira.
- Nabarmentzeko oinarrizko zehar-kompetentzien garapenari ikasgai guztiek egiten dioten ekarpena eta ikusarazteko irakasle-taldeak batera lan egin behar duela oinarrizko kompetentzien inguruko lana planifikatzen eta hari buruzko erabakiak hartzen.
- Irakasle-taldeak elkarrekin aurrera egin ahal izateko kompetentziak eta «eginez» ikastea sustatzen duten proposamen metodologikoak garatzen, denek batera ikaskuntzarako egoerak, testuinguruak eta jarduerak hautatuz.
- Ikastetxearen Curriculum Proiektuaren eta Programazio Didaktikoen bidez, diziplinartekotasuna eta ikaskuntzaren tratamendu globala sustatzen duen curriculum integratzailea garatzeko, ikasgaien hermetikotasuna gaindituz.

Horregatik guztiagatik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran oinarrizko kompetentzien lorpen-mailari buruzko eskola-orientaziorako txosten indibiduala egitea hobekuntza-elementutzat jo behar da, bai ikasleen apendizaiari hobeto egokitzen zaion ebaluazioa egiteko, bai irakaskuntzari buruz eta hura hobetzeko moduei buruz gogoeta egiteko.

4. OINARRIZKO KOMPETENTZIAK BALORATZEKO ADIERAZLEAK

4.1. Adierazleak formulatzeko kontuan hartu diren irizpideak

Dokumentu honetan jasotako lorpen-adierazleak etapako ikasgai guztien curriculumaren analisitik sortu dira. Curriculum bakoitzean, ikasgai ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak erreferente dira kompetentziak ebaluatzeko. Horregatik, lorpen-adierazleak lantzeko erabili dira.

Ebaluazio-irizpideak eta adierazleak aztertu ondoren, adierazleen zerrenda idatzi da, era globalean ikusteko, kompetentziaz kompetentzia, bakoitzaren

eskuratze-mailak zer ezaugarri biltzen dituen. Orokortu daitezkeen eta ikasgai guztietara eraman daitezkezen adierazleak formulatu nahi izan dira. Era berean, kontuan izan dira konpetentzia bakoitzaren osagai guztiak, osotasuna ebaluatu ahal izateko. Hori dela eta, aukeratutako adierazleak era kualitatiboan deskribatzen dituzte, oinarrizko konpetentziez ari garela, ikasleek menderatu behar dituzten alderdiak.

4.2. Ebaluazio-adierazleak

4.2.1. Oinarrizko zehar-konpetentziak

Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea da, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

- Askotariko testu motak ulertu, interpretatu eta erabiltzen ditu.
- Era koherente eta zehatzean komunikatzen du askotariko gaiei buruzko informazioa.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ditu informazioa kudeatzeko, komunikatzeko eta edukiak era sortzaile eta adierazgarrian lantzeko.
- Hainbat hizkuntza erabiltzen ditu proiektuetan laguntzeko eta teknologia berriak erabiltzen ditu ahozko eta idatzizko interakzioetan eta interakzio digitaletan.
- Ahozko eta idatzizko testuak sortzen ditu hainbat euskarritan, ezarritako jarraibideei segituz.
- Sinbolo, grafiko eta ohiko beste zeinu batzuk interpretatu eta erabiltzen ditu.
- Hainbat hizkuntza erabiltzen ditu (bisuala, plastikoa, musikala, gorputzarena, matematikoa) zenbait ideia, emozio eta sentimendu komunikatzeko.
- Era kritikoan azaltzen du era askotako gaiei buruzko iritzi pertsonala, komunikazio digitalaren eta hitzezkoaren (ahoz nahiz idatziz) askotariko moduak erabiliz.
- Taldean egiten dituen mintzaldiak argumentatu egiten ditu, jardueraren helburua ahaztu gabe.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea da, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza autonomiaz antolatzeko.

- Informazioa bilatzeko beharra eta horren helburua identifikatzen ditu eta helburu bakoitzaren arabera estrategia egokiak erabiltzen ditu.

- Gero eta autonomia handiagoarekin bilatzen du iturri analogiko eta digitaletatik datorren informazio garrantzitsua.
- Duen helbururako informazio garrantzitsua hautatzen du eta emandako erregistro-baliabideen bidez jasotzen du (fitxak, eskemak, taulak, informazio-hustuketa, mapa kontzeptualak, galdetegiak, antolatzaile grafikoak).
- Informazioaren balioa eta fidagarritasuna aztertzen du, gero eta autonomia handiagoarekin, duen ezagutzan oinarrituta.
- Lortutako informazioa gorde eta katalogatzen du.
- Informazioa ulertzen du (ezagutu, identifikatu, desberdindu, erlazionatu, erkatu, ordenatu, sailkatu egiten du).
- Hainbat teknika erabiltzen ditu informazioa ulertu eta gogoratzeko (azpimarratzea, oharrak hartzea, eskemak, mapa kontzeptualak, denbora-lerroak, diagramak, arau mnemoteknikoak, etab.).
- Informazioa aztertu eta baloratzen du (ondorioak ateratzen ditu, informazio edo ideia berdinari buruzko hainbat interpretazio desberdintzen ditu, gertaerak eta iritziak desberdintzen ditu)
- Planteatutako galderei erantzun berriak bilatzen dizkie, sormena sustatzen duten teknikak erabilia.
- Ikasitakoa egoera berrietan erabili eta aplikatzen du.
- Jarrera positiboa dauka ikaskuntza berriei aurre egiteko.

Elkarbizitzarako kompetentzia

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea da, gainerako pertsoneri aitortuz norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak eta, horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion ongirako.

- Talde-lanean interesarekin integratzen da, erabakiak hartzen elkarlanean aritzen da, eginkizun zein arduren banaketa adosten du, eta taldearen epeak zein helburuak errespetatzen ditu.
- Alde bakoitzak duen ikuspegiaren lekuan jartzen da, besteen arrazoiak adi entzuten ditu, beste aldeak arrazoia izan dezakeela onartzen du eta bere ideiak era asertibo eta errespetuzkoan defendatzen ditu.
- Era egokian erabiltzen ditu harreman sozialeko oinarrizko arauak, ingurune birtualetan eta aurrez aurrekoetan (hitz egiteko txandak, kortesia-arauak, erregistroa, hitzik gabeko hizkuntza).
- Besteekiko errespetuzko eran jarduten du berak edo beste batzuek egindako edukiak erabiltzean, baita erabilitako softwareaz ari garela ere; eta jabetza intelektuala errespetatzen du.
- Alternatibak planteatzen ditu, eztabaida-prozesua baloratzen du, bide demokratiko eta baketsuen balioa azpimarratzen du eta elkarriketa eta arauak lankidetzara modu gisa defendatzen ditu.

- Aniztasunarekiko errespetua erakusten du: edozein eratako estereotipoak erabiltzea saihesten du eta diskriminazio-adierazpenak, adierazpen sexistak nahiz androzentrikoak antzematen ditu.
- Talde-harremanetatik sortzen diren eskubide eta betebeharrak onartu eta errespetatzen ditu.

Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia

Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea da testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

- Erronka berrien aurrean proiektu, ikerketa eta ekintza bideragarriak proposatu eta garatzen ditu.
- Benetako arazoei erantzuten dieten proiektu indibidual eta kolektiboak planifikatzen ditu, eskura dauden material eta baliabideekin.
- Proiektu batean behar diren elementuak aztertu, zehaztu eta hautatzen ditu.
- Proiektuak gauzatzen ditu hasierako helburua ahaztu gabe.
- Eginkizuna identifikatu eta egokitu egiten du, zailtasunak eta eskura dauden baliabideak baloratu ondoren.
- Bere proiektuarekin erlacionatutako alderdiei buruzko ondorioak aurkezten ditu eta horien inpaktua baloratzen du.
- Komunikazio-planak garatzen ditu proiektuak era efikazean hedatu eta argitaratzeko.
- Lanak berrikusten eta hobetzen parte hartzen du.

Norbera izaten ikasteko konpetentzia

Norberari bizitzako esparru eta egoera guztietan sortzen zaizkion sentimenduez, pentsamenduez eta ekintzez gogoeta egitea da, haiei buruz egiten den balorazioaren arabera sendotu eta egokitzea horiek guztiak, eta, era horretan, etengabeko hobekuntzaren bidez, norbera autorrealizaziora bideratzea, errealizazio horren dimentsio guztietan.

- Hitzeko hizkuntza eta hitzik gabekoa komunikazio-egoerara egokitzen ditu.
- Ardurak hartzen ditu, bere lan pertsonala antolatzen du eta berrikusi egiten du amaitu ondoren.
- Lan pertsonalean ahalegina, autonomia eta pertseberantzia erakusten ditu, eta eginkizunetan jarrera aktibo eta arduratsua du.
- Era egokian ebaluatzen ditu bere aurrerapenak eta hobeto ikasten laguntzen dioten baliabideak eta estrategiak identifikatzen ditu.
- Akatsa ikaste-prozesuaren faseetako bat dela onartzen du eta gainditzeko modua bilatzen du.

- Erabakiak era arduratsuan hartzen ditu, justifikatu egiten ditu eta onartzen du erabaki guztiek beste aukera batzuei uko egitea dakartela.
- Bere erabakiek gainerako pertsonengan eragin dezaketela onartzen du.
- Sentsibilitatea eta enpatia erakusten ditu laguntza behar dutenekiko.
- Konfiantza erakusten du dituen aukeretan, bere lorpenak baloratzen ditu eta gainerakoen aurrean defendatzen ditu.
- Bere emozioak onartu eta erregulatzeko eta fisikoki zaintzeko baliabideak eta estrategiak ditu.

4.2.2. Diziplina barruko oinarrizko kompetentziak

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia

Hitzezko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea da, euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz komunikatzeko. Horrekin batera, heziketa-literarioa garatzea ere bai, nor bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzen laguntzeko.

- Hizkuntzaren hainbat erabilera-erremutako eta generotako ahozko eta ikus-entzunezko testuak, askotariko euskarritan, era kritikoan ulertu eta interpretatzen ditu.
- Hizkuntzaren hainbat erabilera-erremutako, generotako eta euskarritako idatzizko testuen edukia eta forma era kritikoan ulertu eta interpretatzen ditu.
- Era argi eta ordenatuan sortzen ditu askotariko euskarritan, hainbat erabilera-erremutako eta testu-generotako ahozko testu egoki eta efikazak.
- Era aktiboan parte hartzen du eta arau sozio-komunikatiboak errespetatzen ditu ikaskuntzarako eta elkarbizitzarako interakzio, debate eta eztabaidetan.
- Idatzizko testuak sortzen ditu, komunikazio-egoerarako egokiak, koherenteak, kohesionatuak eta zuzenak askotariko euskarrietan, hainbat generotakoak eta hizkuntzaren hainbat erabilera erremutakoak.
- Hizkuntza-sistemaz eta hizkuntza-arauez dakiena erabiltzen du testuak hobeto ulertu eta ekoizteko.
- Irakurtzeko ohitura behar beste garatua du eta irakurketak bere irizpidearen arabera hautatzen ditu, gozatzeko zein ikasteko.
- Literaturako ahozko eta idatzizko testuak ulertzen ditu eta horiei buruzko iritzi pertsonala azaltzen du.
- Gizarteko hizkuntza-aniztasuna onartu eta baloratzen du.
- Portaera eta jarrera positiboa du hizkuntzekiko eta hiztunekiko.

Matematikarako kompetentzia

Jakintza matematikoa aplikatzea da bizitzako premiekin zerikusia duten arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta haiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen-moduak eta tresnak erabilia.

- Kalkuluak eta estimazioak era efikazean egiten ditu (kalkulu mentala, arkatz, paper edo kalkulagailuarekin egindako algoritmoak), eta notazio egokiena erabiltzen du, berreketa, erroketak eta kalkulu logaritmikoa barne.
- Hizkuntza aljebraikoa erabiltzen du (ekuazioak, ekuazio-sistemak...) hainbat arazo mota ebazteko.
- Proporzionaltasun numeriko eta geometrikoko erlazioak identifikatzen ditu eta eguneroko bizitzako problemak ebazteko erabiltzen ditu.
- Neurriarekin erlazonatutako problemak ebazten ditu estrategia eta unitate egokiak erabiliz eta neurrien eskalak zein erlazio trigonometrikoak interpretatuz.
- Software egokia erabiltzen du figuren propietateak eta mugimenduak lauan eta espazioan ikasteko eta ikertzeko.
- Erlazio funtzional baten bidez deskriba daitezkeen magnitudeen arteko erlazioak identifikatu eta azaltzen ditu eta grafikoak dagozkien adierazpen aljebraikoekin lotzen ditu.
- Funtzioen grafikoen (lineala, koadratikoa, esponentziala...) inguruko propietateak marraztu, aztertu eta aplikatzen ditu problemak ebazteko erabiliz.
- Parametro estatistiko garrantzitsuenak kalkulatu eta interpretatzen ditu (datu-banaketa baten batezbestekoa eta desbideratze tipikoa) kalkulagailua edo software egokia erabiliz.
- Benetako egoerei buruzko taula-datu eta grafikoak kritikoki interpretatzen eta irudikatzen ditu software egokia erabiliz.
- Gertaeren probabilitatea kalkulatu du zuhaitz-diagramen eta kontingentzia-taulen bidez eta probabilitate baldintzatuko problema sinpleak ebazten ditu.
- Simulazioak egiten ditu, ausazko esperimenteren emaitzei buruzko aieruak formulatu eta egiaztatzen ditu.
- Problemaren enuntziatua ulertzen du irakurtzean eta hainbat estrategia heuristikoki aplikatzen ditu problema ebazteko.
- Ezagutza matematikoa aplikatzen du problemak ebazteko eta lortutako emaitzak egiaztatzen ditu.

Zientziarako kompetentzia

Jakintza eta metodologia zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiltzea sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko-teknologikorik esanguratsuenak erabiltzea hainbat

testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko, eta bizitzako alor eta egoera guztietan erabakiak arduraz hartzeko.

- Zientzietako oinarrizko kontzeptuak mundu naturaleko sistemekin eta prozesuekin erlazionatzen ditu, eta legetan, eredueta eta teoretan artikulatzen ditu.
- Zientzia-arloko datu, gertakari eta prozedura garrantzitsuak ezagutu eta deskribatzen ditu, eta azalpen zientifikoetan eta problemak ebaztean aplikatzen ditu.
- Errealitatearen interpretazio zientifikoak ez-zientifikoak direnekiko bereizi egiten ditu, eta onartzen du zientziak enpirikoki egiazta daitezkeen iragarpenak egiten dituela.
- Gai zientifikoei buruzko informazio garrantzitsua era aktibo eta kritikoan topatu, hautatu eta interpretatzen du, hainbat hizkuntza eta inguruetan.
- Sistema eta fenomeno naturalak azaltzen ditu, eta horien portaera iragartzen du ezagutza zientifikoaren arabera, era koherente, egoki eta zuzenean.
- Informazio, azalpen eta argudiozko mezu eta testuak egiten ditu, eta horietan ezagutza zientifikoak aplikatzen ditu gertaerak interpretatzeko eta/edo hipotesi, eredu eta teoria zehatz bat justifikatzeko.
- Problema zientifikoak identifikatu eta ebazten ditu, bai era kualitatiboan bai kuantitatiboan.
- Ikerketa dokumental eta esperimental zientifiko txikiak egiten ditu.
- Jarduera zientifikoarekin erlazionatutako portaerak ezagutu, baloratu eta erakusten ditu, eta problemak ebazteko eta ikerketa egiteko aplikatzen ditu.
- Era autonomo eta kritikoan egiten ditu garapen jasangarria sustatzen duten proposamenak, mundu naturalean giza jarduerak sortzen dituen aldaketen aurrean.
- Osasun-ohiturak eta bizimodu osasungarria ditu eta horiek garatzen ditu.
- Ikerketa zientifikoaren beharra eta gizartearen ongizatean dituen aplikazioen beharra justifikatzen ditu.

Teknologiarako kompetentzia

Produktu eta sistema teknologikoak zentzuz garatzea eta erabiltzea da, jakintza teknikoak eta beste adar batzuetakoak metodikoki eta eraginkortasunez aplikatuta, egoera interesgarriak ulertzeko eta konpontzeko eta produktu eta zerbitzu berriak eskaintzeko, eta emaitzen berri ematea, hobetzeko edo erabakiak arduraz hartzeko prozesuekin jarraitzeko.

- Arazo zehatz baterako irtenbide egokia diseinatzen du eta, gainera, ingurunearen jasangarritasunarekiko jarrera kontsekuentea du.

- Eginkizunak zehazten ditu prozesu teknologikoaren etapa bakoitzerako.
- Ikaskuntzan erabilitako ingurune birtualetan efikazia eta segurtasunarekin jarduten du.
- Sistema teknologikoak aztertzen ditu eta sistema osatzen duten elementu bakoitzaren funtzioa azaltzen du.
- Proiektua egitean zehaztutako etapa bakoitza dokumentatzen du, sinbologia eta lexiko egokiak erabiltzen ditu, eta prozesuan behar izan duen informazioa era kritikoan aztertu du eta barneratu egin du.
- Teknologia desberdinak muntatzean, kontuan izan ditu segurtasun-neurri egokiak materialak, erremintak, operatzaileak eta neurketa-aparatuak erabili dituenen.
- Segurtasuna, ingurumena eta ekonomia errespetatzen ditu lan-planean deskribatutako eragiketa teknikoak egitean.
- Planteatutako arazo-egoeretako baten bati programazio-lengoaian egindako programa batekin irtenbidea eman dio.
- Beste pertsona batzuen aurrean egindako proiektu teknologikoa azaldu eta defendatzen du eta, gainera, berak sortutako webgune batean partekatzen du.
- Prozesua eta egindakoaren emaitza ebaluatzen ditu eta hobekuntzak proposatzen ditu.

Konpetentzia sozial eta zibikoa

Nork bere burua, norberaren taldea eta bizi duen mundua ezagutu eta ulertzea da, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz, eta haien prozedurak eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidario eta inklusibo bat garatzen laguntzeko.

- Beste pertsona batzuekin bizi den eta dituen ezaugarri eta mugekin pertsona indibidual eta berezi gisa onartzen du bere burua.
- Ezaugarri eta helburu desberdinak dituzten hainbat talderen artean normaltasunez parte hartu eta antolatzekeo gai da, baita maila desberdinetan ere (familia, eskola, auzoa, herria, nazioa).
- Kide den erakundeetako (eskola, udalerrria, lurralde historikoa, etab.) funtzionamendu demokratikoa identifikatzen du.
- Gertaera sozial, kultural edo historikoei eragiten dieten aldaketak, bilakaera edo iraunkortasuna baloratzen ditu.
- Bizi den gizartearen ezaugarriak ezagutzen ditu eta bereziki gizarte horren iragana eta gaur egungo eraketa, antolamendua eta funtzionamendua.
- Giza portaera indibidual eta kolektibo jakin batzuek naturan izan ditzaketen ondorio negatiboak aurreratzen ditu.
- «Garapen jasangarriaren» ideia ulertzen du, baita horrek dakartzan ondorio sozialak ere.

- Ohartzen da bizi den inguruneaz, eta horrekiko konpromisoa eta elkartasuna adierazten ditu.
- Ingurumenarekiko jarrera arduratsua du.
- Giza eskubideak elkarbizitzarako erreferentziako oinarritzko esparrutzat jotzen ditu.
- Arazo sozialak bide demokratikoen bidez konpontzen ditu.
- Herritarren eskubide eta betebeharrak onartzen ditu eta horren arabera jarduten du bere eguneroko bizitzan.
- Egungo elkarbizitza-gatazken alderdi guztiak aztertzen ditu, eta bere burua alderdi guztien ikuspuntuan jartzeko ahalegina egiten du.
- Bizi den munduko egoera gatazkatsuren bat aztertzen du eta horren aurrekariak, kausa sozial, kultural edo historikoak bilatzen ditu.
- Gizatalde edo herrialdeen arteko mota desberdinetako gatazka sozialak ikasten ditu, eta horiek ebazteko prozedura baketsuak erabiltzea sustatzen du.
- Ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak erabiltzen ditu bizi den munduaren errealitatea ulertzeko.
- Historiako, gizarteko edo kulturako iraganeko edo gaur egungo gertaeraren baten kausa-ondorio erlazioa identifikatzen du.
- Gertaera historikoak eta sozialak sortzen dituzten kausak sailkatu eta beren artean erlazionatzen ditu.

Arterako kompetentzia

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki baloratzea, garai eta erabilera anitzetakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.

- Igartzen du bizi den errealitatea interpretatu, ulertu eta horri erantzuteko erak daudela hizkuntza artistikoetan.
- Ekoizpen batean ager daitezkeen askotariko hizkeren arteko interakzioak hautematen ditu, komunikazioari mesede egiten dioten eta sorkuntza aberasten duten elementu gisa.
- Adierazpen eta ekoizpen artistikoetan identifikatzen ditu horietan agertzen diren baliabideak, eta mezuaren gain horiek duten ondorioa baloratzen du.
- Ekoizpen artistikoak egiten ditu baliabideen aukera zabala era arrazoituan erabiliz, bere interes adierazkor eta komunikatiboen arabera.
- Lan-proposamenei alternatiba pertsonalak planteatzen dizkie, sormen eta gogoeta artistikoaren bidez.
- Bere ekoizpenetan, bere adierazpen- eta komunikazio-beharren arabera, hizkera artistiko bat baino gehiago integratzen ditu.

- Ekoizpen artistiko eta kulturalen esanahiak kritikoki interpretatzen ditu, eta lan hori sortu den testuingurua eta asmoa kontuan hartzen ditu.
- Hainbat adierazpen modu artistikoren ezaugarriak identifikatu eta alderatzen ditu.
- Proposamen artistikoen funtzio eta erabileretan aldakuntzak antzematen ditu, eta historian eta kulturetan zehar gai aldakor gisa interpretatzen ditu proposamen artistiko horiek.
- Kultura- eta arte-adierazpenetan dagoen aniztasuna ezagutzen du, eta aberastasun-faktore gisa interpretatzen du.
- Arte- eta kultura-adierazpenak baloratzen ditu, kulturen ondarearen zati direla ulertuta.
- Lan eta adierazpen artistiko eta kulturalak etengabe aldatzen diren produktu gisa ulertzen ditu.

Konpetentzia motorra

Norberarekin eta besteekin, bai eta inguru fisiko eta kulturalarekin ere lotuta dauden esparru motorreko egoerei aurre egitea modu autonomoan, kritikoan, sortzailean eta espresiboan. Horretarako, bada, jokaera motorra garatzen lagunduko duten ezagutzak, prozedurak eta jarrerak integratu beharko dira, bizi-estilo osasuntsu baten bitartez ongizate integrala lortzen lagunduko duten jarduera fisiko eta kirol-jarduerak praktikatzeko ohiturak hartuz.

- Bere ahalmen eta trebetasun motorrak garatzen ditu portaera motor autonomoa lortzeko.
- Programa sinpleak planifikatu eta garatzen ditu egoera fisikoa hobetzeko.
- Erregularitasunez egiten ditu jarduera fisiko, ludiko eta adierazkorak, baita kirola ere, eta ikasitako baliabideak eta estrategia egokiak erabiltzen ditu.
- Bere portaera motorra aberasten du jolasetan, euskal dantza eta kirolean eta beste kultura batzuetako dantzetan arituta, bere balio kulturalak indartzen ditu eta interkulturalitatea eta intrakulturalitatea baloratzen ditu.
- Gorputza era espontaneo edo berariazkoan erabiltzen du eta sormena, estimua eta hainbat emozio adierazten ditu.
- Era kontzientean integratzen ditu jarduera fisikoaren hainbat adierazpen egunerokotasunean, osasunaren eta bizitza orekatuaren funtsezko zati gisa.
- Jarduera fisikoak planifikatu eta garatzen ditu ingurune naturalean eta hiri-ingurunean aisialdi osasungarria egiteko.

5.- Oinarrizko kompetentzien eskuratze-maila baloratzeko prozedura

5.1. Nola identifikatu lorpen-maila

Hezkuntza Sailburuaren Aginduak garatu egiten du abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 36. artikuluan ikasleen ebaluazioari buruz adierazitakoa. Agindu horrek hau ezartzen du: *"4.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasturte bakoitzaren amaieran, tutoreak, taldeko irakasleekin elkarlanean eta orientatzailearen laguntzaz, eskola-orientazioaren banakako txostena egingo du, familiei informazioa eta ikasleei aukeren gaineko orientabideak emateko. Txosten horretan jasoko da ikasturteko helburuetan eta proposamena eragin duten oinarrizko kompetentzien eskuratze-mailan izandako betetze-mailari buruzko informazioa, eta ikaslearen espedientean sartuko da."*

Beraz, irakasle-taldeak du bere taldeko ikasleen kompetentzia-maila ebaluatzeko azken ardura. Taldeak hartzen dituen erabakiak ikasturte-amaieran eskola-orientaziorako txosten indibidualean jarriko dira eta zehar-kompetentzien eta diziplina-kompetentzien lorpen-maila adieraziko da, hasierakoa, ertaina edo aurreratua termikoekin.

4. atalean zehazten den adierazleen zerrendak oinarri gisa balio du irakasle-taldeak erabakiak hartzeko. Ildo horretan, litekeena da maila bakoitzean adierazle batzuk lehenestea, maila guztietan zerrenda osoa kontuan hartzeko beharrik gabe.

Ikasle bakoitzak erdietsitako lorpen-maila zehazteko, kontuan har daitezke dokumentu honetan jasotako adierazleak. Hala ere, adierazle horiek etapako maila bakoitzean modulatu eta egokitu behar dira mailarekiko espero daitekeenaren arabera. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako maila aurreratua maila ertaineko lorpen-mailatzat jo daiteke laugarren mailan, esaterako.

Oro har, irizpide hauek har daitezke kontuan:

- hasierako mailak haxe adierazten du: ikasleak lorpen-maila eskasa du adierazleen erdietan baino gehiagotan; hala ere, beste adierazleren batean jardun ertaina edo aurreratua izan dezake.
- maila ertainak haxe adierazten du: ikasleak behar besteko lorpen-maila erakusten du adierazleen erdietan gutxienez; hala ere, beste adierazleren batean hasierako maila edo maila aurreratua izan dezake.
- maila aurreratuak ikaslearen jardun altua adierazten du adierazleen erdietan gutxienez, nahiz eta beste adierazleren batean hasierako jarduna edo ertaina izan dezakeen.

Barne prozedura gisa, ponderazioak erabiltzen badira erabakiak hartzen laguntzeko, horrek ez du, inola ere, irakasleen koordinazioa ordeztu behar irakaslearen oinarrizko konpetentzien balorazioa adosteko.

5.2. Nola jardun ebaluazio-saioan

Azken ebaluazio-saioaren aurretik, irakasle bakoitzak ikasle bakoitzaren balorazioa egingo du. Balorazio horretan zehar-konpetentzia guztiena eta irakasleak lantzen duen ikasgaiari lotutako diziplina-konpetentziena kontuan hartuko dira. Ikasgaien eta konpetentzien arteko erlazio hori erabakitzeko, kontuan izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeari buruzko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak¹ xedatutakoa.

Horretarako, irakasleak kontuan izango ditu dokumentu honetan gida gisa eskainitako konpetentziak ebaluatzeko lorpen-adierazleak. Adierazle horiek (etapa osorako balio dute) ez dira elementu soltetzat jo behar, baizik eta etapako ikasgai guztietan txertatuta dauden osagaitzat, eta maila bakoitzean aurreikusitako helburuen arabera modulatu/egokitu behar dira.

Irakasle-taldeak, amaierako ebaluazioan elkartuta, bere taldeko ikasle bakoitzaren oinarrizko konpetentzien eskuratzeko-maila baloratuko du. Balorazio horrek eskatzen du oinarrizko konpetentzia guztietan, bai zeharkakoak bai diziplinakoak, akordioak egitea. Kasu batean edo bestean akordioak egiteko modua desberdina da:

- Oinarrizko zeharkako konpetentzien ebaluazioak irakasle guztiak inplikatzeko, denak maila berean.

Gehiengoak (gutxienez, ebaluazio-taldearen bi heren) ados badago ikasle batentzat zehaztutako mailarekin, hori izango da konpetentziaren behin betiko balorazioa. Ez bada gehiengo horretara iristen, aurkako balorazioak argudiatuko dira adostasuna lortu arte.

- Oinarrizko diziplina-konpetentzien kasuan bi egoera desberdin daude. Konpetentzia batzuetan konpetentzia horrekin zuzenean erlazionatutako ikasgai bakarra dago; adibidez, konpetentzia motorra. Kasu horietan, ikasgaia lantzen duen irakasleak egingo du balorazioa. Aldiz, oinarrizko diziplina-konpetentzia batek hainbat arlo edo ikasgai biltzen baditu, ikasgai horietako irakasleek egingo dute balorazioa. Bat egiten ez badute, beren ikuspuntuak argudiatuko dituzte adostasuna lortu arte.

¹ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600141e.pdf> 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Balorazio hauek behin betikoak izango dira, salbu irakasle-taldearen gehiengo handi bat (gutxienez ebaluazio-taldearen bi heren) ados ez badago; kasu horretan, ikuspuntuaren zergatia azaldu beharko da, ados jarri arte.

Irakasle-taldeak oso kontuan izan beharko du diziplina-kompetentziaren garapen- mailaren eta kompetentzia horrekin zuzenean erlazionatuta dauden ikasgaietan ikasleak lortutako kalifikazioen arteko koherentzia.

Era berean, irakasle-taldeak kontuan izan beharko du oinarrizko kompetentzien garapen-mailaren eta mailaz igarotzeko erabakiaren, titulazioa emateko erabakiaren eta hurrengo mailan laguntza edo errefortzua behar bada hartu beharreko neurrien inguruko proposamenaren arteko koherentzia.

Ikastetxeen ardura da, zuzendaritza-taldea eta bereziki ikasketaburua buru izanik, ikasleen amaierako ebaluazio-prozesuaren barruan, oinarrizko kompetentzien garapen-mailaren edo eskuratze-mailaren balorazioari dagokionez, amaierako erabakiak hartzeko ezinbestekoak diren denborak, guneak eta tresnak era egokian antolatzea.